

2017-07-21 EGUBAKOITZA / 737. ZENBAKIA / 17. URTEA
 DEBAGOIENENKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

Zirkuitua 89koan oinarrituta / 27




Bideragarritasun plana aztertzeko batzarra

Fagor CNAko langileek bilera egingo dute gaur Garagartzan, planaren berri jakiteko / 2



UDAKO JAIALDIEN BEROTASUNA

Gaur, egubakoitza, Depedro abeslariak kontzertua eskainiko du Eskoriatzan / 32






Jairo Zavala Depedro musikari madrildarra.

DAVID RUANO

+  Bingen Zupiria Kultura sailburuari elkarrizketa

HURRENGO 'PUNTUA', IRAILAREN 1EAN

SINADURAK

 JULEN ARRIOLABENGOA / 6	 SAIOA GARITANO / 20
 NEREA MAKAZAGA / 9	 JON SAGARAZU / 27
 IKER ELEXPURU / 13	 MIKEL IRIZAR / 48



Audi Q2 berria

Udalaitz



Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Hemen GARBIKETAK

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

Intxaurtxueta 16, behea
 ESKORIATZA
 T. 943 71 48 45
www.hemen-garbigetak.com
hemen@hemen-garbigetak.com



Fagor CNAko langileak Arrasateko Herriko Plazan, eguaztenean. JOKIN BEREZIARTUA

Aldatu nahi diren kondizioek baldintzatuko dute geroa

Fagor CNAko langileek –Edesa Industrialekoak eta Geysenkoak– gaur, egubakoitza, egingo dute batzarra CNA Taldeak proposatutako bideragarritasun plana aztertzeko, Langile Batzordeak aurkeztuko diena; Garagartzan egingo dute, fabrika barruan

Ubane Madera DEBAGOIENA

Gaur, egubakoitza, 11:30ean egin go dute Fagor CNAko langileek euren artean batzarra, fabrika barruan eta modu pribatuan egin ere. Izan ere, orduantxe aztertuko dute atzo, eguena, 16:30ean CNA Taldeko zuzendaritzak aurkeztu zien –ezustekorik ezean– bideragarritasun plana.

Esperantza barik

Azken horren gaineko informazio barik, ezkor eta kritiko azaldu ziren Arrasateko Herriko Plazan, bizi duten egoera salatzen eguaztenean egin zuten elkarretaratzean. "Zuzendaritzaren kudeaketa negargarriek ekarri gaituzte gauden lekura. Oraindik ezagutzen ez dugun bideragarritasun plan baten inguruan hitz egin digute, baina susmoa dugu plan horrek murritzeta gehiago ekarriko dituela langileontzat. Ez dugu onartuko langileak kontuan hartuko ez dituen eta irteera faltsuak ekarriko digun planik", adierazi zuen Rikardo Perezek, Edesa Industrialeko Langile Batzordeko presidentek.

30 langile kaleratu nahia

Perezek, besteak beste, Garagartzako garbiketa lerroko 30 langileen –langile guztien– kaleratzea ere aipatu zuen; izan ere, gaur-gaurkoz, hori ere bada zuzendaritzaren eta langileen arteko desadostaritzak azken erabakiek ziurgabetasun eta babesgabatasun egoera baten aurrean utzi gaituzte, etorkizunak zer ekarriko digun ez dakigula. Horrez gain, 30 langileen aurkako kaleratze kolektibo baten tramiteak abiatu dituzte".

Mahaitik altxatu, atzera ere

Hain zuzen ere, azken horren harira, oraingo asteko martitzenean zuten Langile Batzordeko eta CNA Taldeko ordezkariak lan etete horien gaineko negoziazio batzarra.

Beritasun modura, Raimundo Jimenez bertaratu zen, Edesa Industrialgo kontseilari delegatu berria, Francisco Martinen ordekoa.

Baina hortik aurrera, zaharrak berri; izan ere, joan den astean egin zuten moduan, orain-

go honetan ere mahaitik altxatu eta joan egin ziren langileen ordezkariak. "Ez dute ERE hori erretiratu, jarraitzen dute esaten 30 langile kaleratu beharra dagoela; bideragarritasun plana oraindik aurkeztu ez dutenean kaleratze horiek ezinbesteko baldintza moduan jartzen dituzte, eta hori guk ez dugu onartzen", dio Langile Batzordeko presidentek.

Baldintzak aldatu nahian

Hortik aurrera, eta orain arte bezala, CNA Taldeak aurkeztu duen bideragarritasun plan horretatik eratorriko denak argituko du –edo gehiago ilundu– etorkizuna.

Jakinekoea da CNA Taldeko zuzendaritzak baldintza batzuk aldatu beharra ikusten duela. Hain zuzen ere, oraingo astean komunikatu bitartez berretsi egin du "sinistuta" daudela "jarduera mantentzeko aukerak badaudela"; hori bai, "logikoki", baldintzak berraztertuta. Alegia, jarduerari eusteko "2014an bereganatutako unitate produktiboak –Arrasateko, Eskoriaztako eta Basauriko plantak–

eskuratzeko onartutako baldintzak berrikusi beharra" dagoela azpimarratu du.

Bada, orain baldintza horiek zeintzuk diren zehaztea da gaikoetako bat. Hori bai, edozein kasutan, CNA Taldeak orain dela hiru urte onartutako baldintza edo konpromiso horiek aldatzeko ere oniritziaren bat beharko du.

Baldintzak bakarka aldatu ezin

Zehatzago esanda, eta Goienak kontsultatutako halako gaietan adituak diren iturrien arabera, "CNA-ak konkurtso baten barruan aktibo batzuk erosi zituen eta ordainketa konpromiso batzuk hartu. Konpromiso hauek hartzekodun guztien aurrean hartu zituen konkurtsoaren baitan. Konpromiso hauek edozein kontratutan bezala bete

30 LANGILE KALERATZEKO BALDINTZARI EUTSI EGIN DIO CNA TALDEAK

egin behar dira eta bakarka ezin ditzake aldatu".

Babesa

Orokorrean ondoriozta daiteke, aurrera egitekotan ere, han edo hemen, negoziazioa ezinbestekoa izango duela CNA Taldeko zuzendaritzak erabakiren bat hartu aurretik.

Bien bitartean, langileak geroago eta ezkorrago ageri dira. Eta ezinegon hori partekatu eta babesa adierazi zieten eguazteneko elkarretaratzean parte hartuz, EH Bilduren Gipuzkoako politika arduradun Unai Larreategik, Ezker Anitzako diputatu eta koordinatzaile nagusi Isabel Saludek eta Elkarrekin Ahal Duguko Jon Hernandezekin batera, Arrasateko zinegotzi Eneko Barberenak eta Itxaro Artolak (EH Bildu), Victoriano Fuentesek (PSE-EE), Igor Urizarrek eta Eva Abuinek (Baleike) eta Juan Luis Merinok (Irabazi). Horiez gainera, besteak beste, Arrasateko Udalak berak joan den astean adierazpen instituzional bitartez adierazi zien elkartasuna eta elkarlanerako prestutasuna.

Oporretan etxeko lapurretak saihesteko gomendioak

Prebentzio neurri simple batzuk hartuta etxebizitzetako lapurreta asko ekidin daitezkeela dio Ertzaintzak

Jokin Guridi DEBAGOIENA

Askok oporrak etxetik kanpo pasatzen duten garai hauetan, lapurreta kasuak gerta daitezke. Ertzaintzak ohartarazten du erne egon behar dela etxebizitzetan lapurretarik egin ez dezaten eta hau ekiditeko prebentzio neurri batzuk har daitezkeela.

Ez eman informaziorik

Hasteko, ez da esan behar jendaurrean, ezta sare sozialetan ere, zein egunetan ez zaren etxean egongo. Ez utzi halako mezurik erantzungailuan. Behin joanda, berriz, etxeko sarrerako atearen sarraila giltzari bi buelta eman da itxi behar da. Ildo beretik, hobe da sarraila modernoak, behar adinako segurtasun-bermeak ematen dituztenak, jartzea.

Bestalde, sarrerako atearekin segituz, haren markoa tarteka aztertu behar da, erlaitzen bat

jarri duten ikusteko. Izan ere, lapurrek erlaitz bat jartzen dute atea zabaltzerakoan erortzen dena, eta hainbat egunetan bertan jarraitzen badu, inor ez dabilela esan nahi du. Halakorik lapurretarik egin ez dezaten eta hau ekiditeko prebentzio neurri batzuk har daitezkeela.

Horiez aparte, gomendatzen dute, postontzietako posta eta publizitatea sarri erretiratzea, eta etxean norbait dagoela aditzera emango duten gailuak erabiltzea. Hori norberak ezin badu egin, norbaiti eskatu. Eta, konfiantzako norbaiti eskatu, baita ere, norberaren etxera sarri samar bisita egitea. Bestalde, etxeari atxikita aldamiok badaude, ondo itxi leihoak eta pertsiak.

Renault KOLEOS berria
Crossover by Renault

RENAULT
Passion for life

All Mode 4x4-i Teknologia Berria

Renault Koleos Gama Berria: kontsumo mistoa (l/100 km), 4,6 litro eta 5,9 litro artean. CO₂ isuriak (g/km): 120 eta 156 artean.

Renault gure gendakiz duen eif

AUTOBERRI
San Andres auzoa, 8. Tel. 943 71 24 72. ARRASATE www.autoberri.com

KONTZILIAZIOA

Josemi Rico, 41
Arkitektoa

Bizitzako esparru guztietan pertsona gisa errealizatzeko aukera izan behar dute pertsona guztiak, eta gizartearen ardura da hori lortzea: erakunde, enpresa eta familia.

Hori bultzatzea gure konpromisoa da.

Gipuzkoaren etorkizuna eraikiz.

Etorbizuna Erakiz Gipuzkoako Foru Aldundiak guztion artean gure etorkizuna hobetzeko sortu duen egitasmoa da.

Kontziliazioa erronketako bat da.

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ERAIKIZ



Kontzertua

Uda beteko gaua. Bero, oso bero.
Eta bero sentsazioa handiagoa da jendetzak inguratuta zaudenean.
Arratsalde osoa eman dugu ilaran.
Segurtasun neurri zorrotzak jarri dituzte sarreran eta bokata barruko txorizoa ere serio demonio miatu didate, baita nire kanpera berrien zolak ere.
Sartu gara, azkenean, estadio barrura eta jada hasia dago jaialdia.
Han, hondoan, eszenatokiko argiak antzematen dira, dirdiratsu eta jostari; soinua ere indartsu iristen zaigu, baina urrunegi dago eszenatokia, eta gure idoloak hurbilagotik nahi ditugu ikusi; ukitu, ahal bada.
Zirrarak eta bozkarioak hartu gaitu oinetatik iletaraino, eta aurrera goaz, jende artean lekua eginez ahal bezala.
Jendea ez da gehiegi kekatzen gure oinkada eta ukondokadengatik. Hau jendetza!

GARRASIKA ARI DIRA ONDOKOAK. NEURI EZ ZAIT TXILIORIK ATERATZEN, ITOTZEN ARI NAIZ

Arrazoi zenuten, hemen egon beharra zegoen.
Hau Mendeko Kontzertua izanen da!
Bat-batean, dena da txilia inguruan, dena bultzada. Ez dakigu zer gertatzen den, baina aurrean dugu jendetza gugana jiratu da izu aurpegiz. Gu ere jiratu gara, jirarazi gaituzte, hobe esan, eta airean garamatza jende-masak, oreka galdu eta beste batzuen gainera erosi garen arte. Hankak sumatzen ditugu bizkarra eta burua zapaltzen, gero gorputz bat. Ihes egin nahi, baina ezin mugitu, ezin altxatu.
Garrasika ari dira ondokoak. Neuri ez zait txiliorik ateratzen, itotzen ari naiz. Azpikoa isildu da eta ni ere zorabiatzen hasi naiz ...
Esku-zartek esnatu naute. Begiak ireki eta nire aurrean gitarrista ikusi dut burua makurtuta, publikoaren txalok eskertzen. Bigarren lerroan nago, eserita. Txikia da eraikina, zaharra, baina eder eta freskoa.
A zer lasaitua! Atzera begiratu eta berrogei bat lagun dakusat artistari bere poza eta esker ona adierazten. Zutik jarrita, txaloka eta bibaka hasi naiz.
Izan ere, izugarri gustatu zait kontzertua.

Arrazoi zenuten, hemen egon beharra zegoen.
Hau Mendeko Kontzertua izanen da!
Bat-batean, dena da txilia inguruan, dena bultzada. Ez dakigu zer gertatzen den, baina aurrean dugu jendetza gugana jiratu da izu aurpegiz. Gu ere jiratu gara, jirarazi gaituzte, hobe esan, eta airean garamatza jende-masak, oreka galdu eta beste batzuen gainera erosi garen arte. Hankak sumatzen ditugu bizkarra eta burua zapaltzen, gero gorputz bat. Ihes egin nahi, baina ezin mugitu, ezin altxatu.
Garrasika ari dira ondokoak. Neuri ez zait txiliorik ateratzen, itotzen ari naiz. Azpikoa isildu da eta ni ere zorabiatzen hasi naiz ...

goiena“

KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Aranzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Udane Madera.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Udane Madera, Monika Belastegi, Mirian Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaiztegarai.

Diseinu arduraduna
Iraiki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Marta Leturia.

HARRPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus


PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kuboa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
bertak@goiena.eus

Lege Gerdailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

www.goiena.eus

MARRAZKIZ



HANDIK ETA HEMENDIK

Txirrindularitza eta telebista

JOKIN LABAIEN
HTTPS://LABUR.EUS/DNFKS

Txirrindularitza, txirrindularitza eta txirrindularitza. Tourra, Tourra eta Tourra. Bestelako lasterketa luze eta laburretan ere bai, baina bereziki tropelak Frantziako errepedeak zeharkatzen ditenean egiten du kirol horrek telebista bere. [...]

Gogoetan ari naiz, izan ere, Euskadi Irratian etapetako baten amaiera entzuten ari nintzela, gai interesgarriaz jardun ziren Joxe Mari Apaolaza eta Txomin Perurena. Txirrindularitza

telebistaz ematen ez zen garaia ekarri zuten gogora. Lasterketak jarraitzeko modu bakarra biharamuneko kronikatxoa eta irabazlearen argazkia omen ziren. Nola aldatu diren gauzak. [...]

Atentzioa ematen dit kontu batek: kontrajarritta ez ote dauden antolatzaileek eta hedabideek egiten duten apustua eta jarraipena –eskaintzen dioten dirua– eta txirrindularitza errentagarria ez dela dioen azkenaldiko iritzi zabaldua –desagertutako eta bizirik irauteko zailtasunak dauzkaten taldeen egoeran oinarritua–. [...]

Berezitasun handi bat ere badu txirrindularitzak: halako emanaldirik gabe benetan

jarraitu ezin daitekeen kirol bakan horietakoa da. Kirol askotan unea lekuan bertan bizitza bezalakorik ez dagoen bezala, txirrindularitzan izan liteke emozioz bete

telebistako emanaldia jarraitzea –loak hartzen ez bazaitu, behinik behin–. Eta horretan eskertzekoa da ETB1eko esatarien duten gonbidatuen jardun atsegina. La1 kateko esatari eta gonbidatuen jarioarekin alderatuz gero, zoragarria dela ere esan genezake, hanka sartzeko beldur handirik gabe.

Garaiak aldatzen ari diren arren, oraindik ere ezinbestekoa da telebista zenbait gairi dagokionez. Hona adibide bat.

PROTAGONISTA

"Osasungintza mundurako ingeniariartza logistikoa gara"

AITOR ELORTZA HOME ENPRESAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Mireia Bikuña ARRASATE Health Operations Management Engineers enpresak irabazi du 27. Torbio Etxebarria sarietako bat. Enpresa horretako kidea da Aitor Elortza arrasatearra, Miguel Mediavillarekin eta Xabier Zubizarretarekin batera.

Zorionak sariarengatik! Zer saritzen dute Torbio Etxebarria sariak?

Ekintzaile berrien lana aitortzeko eta ekintzailetza berritzailea eta enpresa-proiektu berrien sorrera bultzatzeko sariak dira. Egun, Euskal Autonomia Erkidegoko ideia eta proiektu ekintzaileen sariketa nabarmenena bihurtu da. Aurten, 31 proiektu aurkeztu dira lehiaketara.

Eta zein izan da zuek aurkeztu duzuen eta aipamena merezi izan duena?
Osasun mundura bideratuta dagoen ingeniariartza logistikoa gara. Gure zerbitzua da irtenbide logistiko integratuak



Aitor Elortza arrasatearra jasotako sariarekin AITOR ELORTZA

eskaintzea. Hau da, ospitale batek dituen zerbitzu guztiak modelo integral baten sartu ditugu. Eta orain, software berria garatzen dihardugu. Hain zuzen ere, hori da saritu dugutena.

Ez dago halako zerbitzua ematen duen beste enpresarik?
Bai, badaude. Besteekiko dugun ezberdintasuna software hori berori da. Hain justu ere, hori da eskaintzen dugun berritasuna.

HAU BE BADOGU!

Mugak Zabalduz karabana Melillaraino



Melillara abiatu zen iragan astean #MugakZabalduz karabana "giza eskubideen urraketa salatzeko", eta helmugara heldu aurretik ere trending topic izan da gaia.
@MugakZabalduz: "Marokoko emakume langileen baldintza gogorrek Melillan. #Europa #Espainia & #Maroko esklabotza honen arduradunak #womenrights" (itzulita).

Festa giro ikusgarria Atxabalpeko harmailan



Eibarren eta Barakaldoren arteko lagunartekoan giro ikusgarria egon zen eguaztenezan, Atxabalpen. Harmaila lepo bete zen eta armaginek 4-0 irabazi zuten partidua:
@SDEibar: "Eskerrik asko #Arrasate! Plazera izan da berriz ere zuekin egotea".
@LaSegundaB: "Giro oso ona Atxabalpen Eibarren eta Barakaldoren arteko lagunartekoan" (itzulita).

Villarren atxiloteta 'trending topic'

Espainiako Futbol Federazioko presidentea eta haren semea, besteak beste, atxilotu ditu Guardia Zibilak, asteon, ustelkeriaren kontrako operazio batean. Twitterren, esaterako, mundu mailan trending topic izan da Villarren kasua, eta gurean ere oihartzun handia izan du gaiak. Angel Maria Villar bilbotarrak 29 urte daramatza futbol federazioko presidente karguan.



Irati tabernako barraren argazki zahar bat; eraberritzerakoan, gaur egun jantokia dagoen lekura aldatuko dute. ARRASATEKO SORTU

Lotara, berrituta esnatzeko

Irati tabernak atea itxiko ditu denboraldi batez, zaharberritze sakonak egin eta itxuraldatuta berragertzeko. Ostean, elkarteak eta tabernak espazio bakarrean egingo dute bat, herritarrentzako "erreferentzia-gune" izaten jarraitzeko helburuarekin

Xabi Gorostidi ARRASATE

1980an zabaldu zituen atea Irati Herriko Taberna proiektuak, eta, denboraren poderioz, berritze beharra sumatu dute 37 urtean *barku* hori gidatu dutenek. "Irati taberna ostalaritza eremu bat baino askoz gehiago izan da jaiotzatik. Ezker aberetzalearen apustu bat izan da, herritarrek erakartzeko eta herri gintza egiteko zentro izatea helburu izan duena", azaldu du Amets Beltran de Guevarak, Sortuko kideak. "Hala ere, 37 urte dituen eraikina da, eta badu berritzeko beharra".

Momentu honetan tabernaren osasun maila ez dago bere onetan, garai hobekak bizi izan ditu. Horren zergatien buruz galdetuta, ondorengo hausnaketa egin du Beltran de Guevarak: "Hainbat faktore ikusten ditut nik. Duela urte batzuk, Biona eta Lagunilla martxan zeudenean, Ferrerías inguru hau aisialdirako gune zentrikoa zen, baina, gaur egun, aisialdi gune hori Arbolapetatik Uarkapera bidean kontzentratzen da. Eta, bestalde, gazteengan ere desideologizazio efektu bat ere badago. Politika eta herri gintza ez daude batzuen lehentasunen artean, eta hori ere faktore garrantzitsua da. Nolabait, Irati tabernaren eraberritze proiektuak egoera horiei buelta emateko helburua du. Gazteentzako eta herritarrentzako erakargarria den elkargune izatea, alegia".

Politikaz harago

Sortu zenetik gaur egunera arte, makina bat bilera eta batzar egiteko gune izan dira Irati taberna eta Arrano elkarteak. "Ezker abertzalearen proiektua izanik, elkargune garrantzitsua izan da gure proiektuak aurrera eramateko. Baina paretak hauen artean, politikaz harago dauden beste milaka gauza antolatuta dira. Maritxu Kajoi, santamasa eta laster etorriko diren Ferreríasko jaiak ere bai. Urte luzez egon ziren kale honetako jaiak egin gabe, baina elkarteak egin dako bileretatik hasi ziren jaiak hauspotzen", azaldu du Kepa Ormaetxeak, Sortuko kideak.

Beltran de Guevararen ustez, Iratik beti izan ditu atea zabalik. "Jaietz gain, bertso eskolak ere egin izan dira elkarteak, eta beti egon da zabalik ezker abertzalearen filosofiarekin bat egin duten mugimenduei babes emateko; AHTaren aurkako plataforma, Etxerat... Herri gintzarekin, justizia sozialarekin, feminismoarekin eta euskalgintzarekin lotura duen orori babesa emateko gune izaten jarraituko du. Auzolan filosofia duten herritar taldeen estalpe izateko asmoarekin".

Itxuraldatze sakona

Lanak egin ostean ikusi ahalko den Irati berriak aldaketa sakona izango ditu espazioaren antolaketari dagokionez. "Lehenik eta behin, karkaba bat egi-

tera behartuta gaude, alde zaharreko lege urbanistikoek behartuta. Hala, elkartearen barra eta tabernako komunak lerrata dauden tarte hori guztiori Udalak espropiatuko digu".

Tabernak eta elkarteak bat egingo dute, "gune multifuntzionala" sortuz, non ekintza kultural ezberdinak egin ahalko diren. "Orain arte ere eskaintza kulturala egon izan da, baina, proiektu berrian, hori indartzeko ahalguz berezia egingo dugu, eta modu egonkorra landuko da gai hau. Hala, kontzertuek, bakarrizketek, hitzaldiek, aurkezpenek eta erakusketek presentzia handiagoa izatea lortu nahi dugu".

Tabernaren kokapena elkarteak dagoen tokian dago aurreikusita. "Buruak daukaguna da taberna elkarteak jantokia dagoen alderdian jartzea. Aldiz, aisialdi gune gaur egun taberna dagoen lekuan joango da, eta agertoki moduko bat izango du. Espazioaren antolaketarekin lotuta, orain arte Irati dekoratua beti izan ditugu herriko presoek argazkiak, eta gustatuko litzaiguke gune berrian argazki horiek gero eta leku gutxiago izatea. Seinale ona litzateke".

Eraikinak sukalea izango du, baina, hasiera baten, afiliatuak ezin izango dute orain arte bezala erabili. Hala ere, Sortuk ez du baztertzeko aurrerantzean afiliatuak bazkariak edo afariak egiteko aukera izatea.

Esperiantzadun gidariak

Eraberritzearen ondoren, eskarmentudun bi pertsonak hartuko dute Irati ostalaritza alorraren gidaritza: Aitor Urizarrek eta Gorka Morrarak. Biek ala biek bizitza osoa daramate ostalaritzan lanean; lehenak Osorik, Gure Leku eta Ekaitz tabernetan eta bigarrenak, Iluntz tabernan. "Eskarmentudun pertsonak nahi genituen. Ez bakarrik ostalaritza alorrean, baita kultur gintzan eta herri gintzan esperientzia zutenak. Zentzu horretan, biek betetzen dituzte baldintza horiek. Epe luzean proiektua da, eta, horretarako, konfiantzazko lantalde bat bilatzea izan dugu helburu", azaldu Beltran de Guevarak.

Kubako Iraultza ospatuz itxiko dituzte Irati, uztailaren 26an, eta, dena ondo ibidean, 2018ko hasiera aldean eraberrituko dute gaur egun taberna dagoen lekuan joango da, eta agertoki moduko bat izango du. Espazioaren antolaketarekin lotuta, orain arte Irati dekoratua beti izan ditugu herriko presoek argazkiak, eta gustatuko litzaiguke gune berrian argazki horiek gero eta leku gutxiago izatea. Seinale ona litzateke".

EUSKAL HERRIKO LEHEN 'HERRIKOA' IZAN ZEN IRATI, BESTE ASKORENTZAT EREDU IZAN DENA



HBko udal taldea 79an. SORTU

Irati sorrera: 1979ko udal hauteskundeak

Demokraziako lehen udal hauteskundeak 1979ko apirilaren egun ziren. "HB urte bat lehenago eratu zen, eta Arrasateko Udalean sartzeko lanean ari ginen: listak osatu, propaganda egin... baina ez geneukan horretarako leku fisikorik. Garai hartan, Centro de Accion Catolicaren egoitza hutsik zegoen, eta bertan egin genuen kanpaina", azaldu du Kepa Ormaetxeak.

Lokala lortzeko prozesua

1979ko udal hauteskunde ostean, Arrasateko HB buru-berraitutako eredu jarraitu zuten beste askok. "Beste herri batzuetatik etortzen ziren, eta galdetzen zuten: 'Nola egin duzue? Nola lortu duzue finantziarioa?'. Beraz, Irati gongibidatu eta jarraitutako prozesua azaltzeko bilerak egin genituen bertan. Ostean, herrialde mailako bilerak egin behar izan genituen, guk jarraitutako eredu era masiboagoan azaltzeko", azaldu du Ormaetxeak.

Segurtasun neurri bereziak

1980an eraiki zenez segurtasun neurri bereziak ditu Irati Tabernak. "1980an muturreko eskuindarrek atentatuak egin zituzten tabernetan. Gogoratu dut, Alonsotegin, EAJko jabea zuten taberna batean bomba jarri zutela eta lau hildako izan zirela. Hori ikusirik, segurtasun teknikari bat kontratatzea erabaki genuen. Ateetan 7 mm-ko altzuruzko xafak jarri genituen eta kanpoaldera ematen duten leihoetan, aldiz, banketxeetan erabiltzen ziren kristal lodiak, balen aurkako sistemarekin", azaldu du Ormaetxeak.

Komuneko paretetan arreta berezia jarri zuten. "Bonbetako asko komunetako galdetan jartzen ziren. Beraz, Irati tabernako komunetako paretak zementu armatuarekin eta altzuruzko xafazko errefortzuekin egin genituen".

MAALA ERRABALEKO JAIK 2017
ARRASATE

Ondo pasau jaiak!

Plus Ultra
TABERNA

Tel.: 943 79 20 57

KIMETZ
Taberna
Plater konbinatuak
Ogitarteko hotz eta beroak
Hamburgesak
Pintxoak
Razioak
943 08 24 51
Maalako Errebala 15. Arrasate.

Abuin
Osasuna eta Ongizate integrala
MAALA ERRABALA 6
639 02 47 14
RPS: 286/13 - Ez da osasun zentroa - ROP: 10/278

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Ondo pasau jaiak!
Tel.: 943 77 04 85

EXPRES KAFETEGIA
TERRAZA
ondo pasau jaietan!

ELKORO
ELEKTRIZITATEA ORO AR
ATEZAIN ELEKTRONIKO
TB SATELITE / DIGITALA
TELEZABALKUNTZA
MANTENU ZERBITZUA
Tel.: 943 79 45 99

UZTAILAK 22, ZAPATUA
09:00etan Etxafuego jaurtiketa
17:00etan Ume jolasak eta txokolate-jana
19:30ean Kontzertua, Monte tabernaren eskutik
21:00etan Afaria, estradetan
21:30ean Dantza
23:55ean Su artifizialak
UZTAILAK 23, IGANDEA
12:00etan Meza, Arrasateko parrokan

Ferrerías kaleko jaiak



Egitaraua:

- 08:00 Etxafuegoak.
- 12:00 Txistularien kalejira.
- 17:00 Haur jolasak eta txokolate-jana.
- 19:00 Txistularien kalejira
- 19:00 Meza parrokan
- 21:00 Kale afaria
- 23:00 Dantzaldia.
- 19:00 Erraldoien konpartsa txikia.

Arrasate
UZTAILAK 26
eguztana

ILEA
ILE-APAINDEGIA
943 79 87 62

Ferrerías 28
Tel.: 943 79 96 55

Akropigmentazioa
AKER
Tattoo & Piercing
C/line: 943799284
Ferrerías 44 behea

GORKA
ilespaindegia
Ferrerías 35
Tel.: 943 77 13 78

BASATI TABERNA
• Bokatak
• Razioak
• Txokak
• Pintxoak
943 04 19 03

13.000 euro kiroldegiko aldagelak berritzeko

Lanak urtea amaitu aurretik egin beharko ditu Elgetako Udalak eta diru-laguntzetara aurkeztutako beste sei proiektu ez dute finantzaziorik jasoko. Rokodromoa berritzeko eta handitzeko egitasmoa beste diru-laguntza deialdi batera aurkeztu dute

Larraitz Zeberio ELGETA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak 13.003,97 euroko diru-laguntza onartu du Elgetako Udalak kiroldegiko aldagelak berritu dituzan. "Hainbat proiektu aurkeztu ditugu, baina bakarria onartu digute", adierazi du kiroldegiko zinegotzi Mikel Elkorok. "Kiroldegian bi aldagela daude eta zaharkituta daude. Horiek berritu baino hobetu egingo ditugu". 2017a amaitu aurretik egin beharreko lanak dira, eta aurrekontuak aztertuko ditu orain Udalak.



Kiroldegiko aldagelak, gaur egun. L.Z.

Beste sei proiektu aurkeztu ditu Udalak diru-laguntza deialdi-berria, baina ez dira finantzaziorako onartuak izan. Proiektuak dira: kiroldegiko ebakuazio ateen aldaketa, leihoen konponketa, squash pistako lurra eta argiak berritzea, gimnasioko lurra berritzea eta hormak margotzea, adinduek jarduerak fisikoa egiteko gunea egitea, eta ur jolasak egitea. "Markinan edo Antzuolan dauden moduko ur jolasak egiteak zein aurrekontu duen aztertu dugu, eta oinarritzkoenak 70.000 euroko inbertsioa suposatzen du", adierazi du Elkorok. "Garestia da Elgetako Udalak gaur egun duen egoera ekonomikorako".

ROKODROMOA BERRITZEKO ETA HANDITZEKO ERE DIRU-LAGUNTZA ESKAERA EGIN DUTE

Kiroldegiko zinegotziak azaldu du beste diru eskaera bat ere egin dutela. Kasu honetan ebazpenaren zain daude. "Kiroldegian kanpoko aldean dagoen rokodromoa berritzeko eta handitzeko 1.700 euroko laguntza

eskatu dugu. Ezin dugu eskaera oso garestia egin: izan ere, aurrekontuaren zati bat ematen dizute eta ipini behar dugunera iritsi egin behar dugu. Asmoa da helduleku berriak erostea eta muntaketa lana auzolanean egitea". Rokodromoak horma bat hartzen du gaur egun. Helduleku gehiago ipini nahi dituzte eta rokodromoa beste horma batera zabaltzea. "Itxura ona dauka parean dagoen hormak —gainean errepidea dago—. Zabal da eta garaiera ona du", esan du Elkorok.



L.Z.

Lanak 220 kilovolteko lerroan

Red Elctrica de España mantenu lanak egingen ari da Elgetatik igarotzen den Abadiño-Arrasate lerro elektrikoan. 220 kilovolteko lerroan eroalea aldatzen eta zenbait euskarri berritzen ari dira. "Lan horiek ez dute lerro elektrikoaren ibilbidean aldaketarik suposatuko. Mantenu eta hobekuntza lanak dira", adierazi dute Red Elctrica de Españatik.



XALBADORPE ERRETRATUEN ELKARTEA

80 urtetik gorako bazkaria

Xalbadorpe Erretiratuen elkarteak 80 urtetik gorako 34 elgetar elkartu zituen barikuan. Bi urtean behin egingen den ekitaldia da eta parrokiaren meza entzun ostean Ozkarbi elkartearen bazkaldu zuten. 95 urterekin emakume nagusia Arantxa Arantzeta izan zen. Gizonei dagokionean, 91 urterekin, nagusia Jose Antonio Montiel izan zen.

Eskolako pasilloak margotzen

Oporrak direla-eta Herri Eskola itxita dagoen honetan, margotze lanak egingen ari dira bertan. Orain urte batzuk eta guraso elkarteak deituta hainbat gela margotu zituzten auzolanean, baina pasilloak egiteko zeuden. Egunotan ari dira margolariak lanean. Hiru solairuetako hormak margotuko dituzte; hormen beheko zatia urdin kolorez eta goiko zatia zuriz.



Margolarietako bat Herri Eskolako hormak margotzen. ELGETAKO UDALA

Alizia Garciak irabazi du jaietako argazki lehiaketa

Bi lagunek hartu dute parte Ferixa Nagusiko jaietako argazki lehiaketan, eta Alizia Garciaren argazki batek irabazi du. Irudian buruhandi bat agertzen da bizkarrez, Zezena buruhandia. Argazkia hurrengo urteko jaietako egitarauko azala izango da, eta egileak argazki kamara digitala jasoko du opari.

Abuztuan ere bisita gidatuak Intxortako lubakietara

Uda sasoian ere zabalik da Intxortako lubakiak ezagutzeko bisita gidatuen eskaintza. Aurreko astean, esaterako, Sasetako lerroa berreskuratzeko lanetan diharduten auzolanderik gazteak izan ziren gunea ezagutzen. Interesatuak aurrez egin behar dute eskaera: 943 71 89 11 / 943 79 64 63 / turismoa@elgeta.eus.

Zatoz zinemarik onenak ezagutzera

10 areto | 2.000 besaulki

CINES GORBEIA ZINEMAK



DOLBY ATMOS™ ESPERIENTZIA BERRIA



ESTREINALDIAK



IREKITZEAREN PREZIOAK

ABUZTUAREN 31 ARTE

OSTIRALA, LARUNBATA ETA IGANDEA (BEZPERAK ETA JAIEGUNAK)

3⁵⁰€ goizeko saioak | 4€ 17:00ak arte | 6€ arrunta

ASTELEHENA, ASTEAZKENA ETA OSTEGUNA

4€ 17:00ak arte

ASTEARTEA IKUSLEAREN EGUNA

4€ arrunta

www.cinesgorbeia.com



Gandiaga Topaguneko kaligrafia erakusketa, inaugurazio egunean. ARANTZAZU GAUR FUNDAZIOA

Kaligrafia erakusketa ikusgai Arantzazun

Hamahiru kaligrafoen lanak egongo dira ikusgai Gandiaga Topagunean irailaren 17ra bitartean. Zehatz esanda, Salvatore Mitxelenaren zenbait poema kaligrafiatu dira erakusketarako. Arantzazu Letraz guneak bultzaturiko egitasmoa da

Iker Oñate OÑATI

Arantzazuko Kaligrafia Jardu-naldiek hirugarren edizioa dute aurtengoa; erakusketa berezia aurtengoa; erakusketa berezia antolatuta gura izan dute antolatzaileek. "Kaligrafiaren erreferentzia-eremu bilakarazi nahi izan dugu Arantzazu. Horren bidean, inguruko kaligrafoak ez ezik, nazioarte mailakoak ere bildu ditugu", esan du Leire Fernandezek, erakusketaren komisarioak. Uztailaren 14an inauguratu zuten *Kaligrafia Arantzazun: idazkera ederraren artea* bataiatutako erakusketa, eta irailaren 17ra bitartean egongo da zabalik.

Bada, bide horretan, hamahiru kaligrafo ezagunen lanak bildu dituzte. Aipatu beharrekoa da kaligrafoek Arantzazuko erakusketarako propio sorturiko lanak direla ikusgai daudenak: Salvatore Mitxelenak 1949an argitaraturiko *Arantzazu: euskal sinismenaren poemak* liburuko hainbat lan kaligrafiatu dituzte. "Mitxelenaren hainbat poema

aukeratu eta zatitu ostean, horiek kaligrafiatzeko enkargua egin genien kaligrafoei. Bakoi-tzak bi pieza erreproduzitu behar izan ditu", azaldu du Fernandezek, erakusketa aurreko prozesuaz mintzo.

Modu horretan, ba, poesia eta kaligrafia uztartu gura izan dute antolatzaileek. Gaineratu duteenez, "adituek kaligrafiaturiko euskarazko olerkiak eskaintzen dituen lehen erakusketa irekia da Arantzazukoa".

Besteak beste, Oriol Miro, Bego Viñuela, Allan Daastrop, Joluvian eta Victor Kams kaligrafoen lanak eskaintzen ditu erakusketak. "Norberak kaligrafia estilo propioa du; hori horrela, erakusketa aberatsa sortu du-

KALIGRAFOEK ARANTZAZUKO ERAKUSKETARAKO PROPIO SORTURIKO LANAK DIRA IKUSGAI

gula esan dezakegu", argitu du Fernandezek.

Kaligrafia tailerra

Erakusketa ez ezik, kaligrafia tailerra ere antolatu dute egitasmoaren bultzatzaileek. Zehatz esanda, uztailaren 14an eta 15ean egin zen aipaturikoa; Oriol Miro kaligrafoa izan zuten irakasle eta izki erromatarrak izan zituzten ikasgai.

Fernandezek esanetan, "perfil ezberdinetako jendea apuntatu da tailerrean". Kaligrafo profesionalak ere badaude tartean; horien artean da iazko edizioan irakasle izan zen Bego Viñuela. "Kaligrafiaren munduan, etengabe dago berritu beharra. Beraz, beti dago zer ikasia", azaldu du Viñuelak.

Bestetik, esan bezala, tailerrean ez ezik, erakusketan ere esku hartu du Viñuelak. "Erronka handia izan da erakusketarako piezak sortzea, estimu handia baitiet bertan esku hartu duten kaligrafoei", aitortu du.



Lou Topet agertoki gainean. LOU TOPET

Lou Topet taldeak kontzertua eskainiko du eguaztenean

Kalean-en barruan, azken bi diskoetako kantuak bilduko dituen emanaldia eskainiko du Atzeko kalen, 19:00etan

I.O. OÑATI

Lou Topet musika talde zarauztarrak kontzertua eskainiko du eguaztenean, uztailaren 26an, Atzeko kalean; 19:00etan hasiko dute emanaldia. Kalean egitasmoaren baitan antolaturiko hizordua da aipaturikoa; orain artekoan, hainbat kultur emanaldi izan dira herrian, horren aitzakiapean.

Bada, zarauztarrek euren azken bi lanetako abestiak eskainiko dituzte: *Abesti bat gutxiago* eta *Peter Seeger gogoan* lanetako kantuak izango dira entzungai. "Azken bi proiektuak aurkeztuko dizkiogu bertaturikoari. Batzuetan, lan berriak aurreko guztiak baztertzea dakar. Gure kasuan, ez da hori gertatu, biak uztartzen jakin izan baitugu", argitu du Oier Aranzabalek, taldeko kideak.

Seeger omenduz

Esan bezala, talde zarauztarrak *Peter Seeger gogoan* diskoko hainbat kantu eskainiko ditu. Bost abesti biltzen ditu Peter Seeger folk musikari estatubatuarren omenez sorturiko lanak. "Bere kantuak geure egin ditugu, euskarara itzulita", dio Aranzabalek. 2017an kaleratuta, euren azken lana da aipaturikoa.

Proiektu horri lotuta, aipatu beharrekoa da Lou Topetek hainbat emanaldi berezi eskaini dituela argitaratze egunetik. Bilboko Arriaga antzokian jardun dute, besteak beste. Emanaldi hartan, euskal musikaren bueltako protagonisten laguntza izan

zuten. Tartean izan ziren Aiora Renteria, Eñaut Elorrieta eta Anje Duhalde.


Bestetik, esan bezala, *Abesti bat gutxiago* bataiatutako lana eskainiko dute zarauztarrek; 2015. urtean plazaraturiko lana da. Argitu beharrekoa da *Abesti bat gutxiago* proiektuak ez duela ohiko formatua: disko-liburua da. Bada, hamaika kantuk eta liburuxka batek osatzen dute musika egitasmoa.

Harkaitz Cano idazlearekin elkarlanean sorturiko proiektua da 2015ekoa. Bide horretan, liburuxka bat sortu zuten, bertsiogintzari buruzko hausnarketak moduko bat eskaini guran. Canok esku hartu izan du zenbaitetan Lou Topeten emanaldietan.

Musika proiektua

Atzera begirakoaz mintzo, esan beharra dago Lou Topet ez dela ohiko taldea. "Musika taldea baino gehiago, proiektu bat litzateke Lou Topet. Aldian-aldian, pertsona ezberdinek esku hartu dute bertan", azaldu du Aranzabalek. Sortze egunetik, beraz, hainbat pertsona izan dituzte kolaboratzaile; eta eurek ere esku hartu izan dute zenbait proiektutan. Esaterako, Imanol Urbietak euskal musikari eta idazlearen omenez grabaturiko *Bakarrik eta libre* diskoan esku hartu zuten.

"Oro har, urte hauetan guztietan, oinarria mantendu dugu. Hori bai, proiektuaren arabera, bidelagunak aldatzen joan dira", dio Aranzabalek.



13. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA

egin klik!

Jaso ditugu lehen argazkiak!



BERGARAKO IGERILEKUAN MERIENDATZEN | Argazkia: Manu Gonzalez



'PUNTUA' EGUZKITAN, LAGAKO HONDARTZAN | Argazkia: Iñaki Gorostidi



SELLAKO URETAN 'PUNTUA' IRAKURTZEN | Argazkia: Maitane Ugarte



SUANCESKO EL CARMEN JAIK | Argazkia: Cristina Tejada



GETARIKO SAN ANTON MENDIA | Argazkia: J.L. Hernando

Egin klik eta bidali poltsikoko telefonoarekin, argazki kamerarekin edo tabletarekin ateratako udako argazkiak!

Posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu argazkiak!

Sariak

LEHEN SARIA: LENOVO TAB 2 A10-30 tableta

GOIENA SARIA*: Bi pertsonarendako bazkaria edo afaria Gure Ametsa jatetxean.

* Eraman GOIENA edo 'Puntu' oporretara, eta argazki originalenak, kuriosoenak, graziosoenak saria izango du. Animatu eta bidali zuen argazkia!

PUBLIKOAREN SARIA: Zumaiako Zelai Talasoterapian bi pertsonarendako zirkuitu termala + Zelai menua

PARTE-HARTZE SARIA: Intersport Loramendin erabiltzeko 100 euroko erosketa-txartela. (Publikoaren Saria aukeratzeko parte hartzen dutenen artean zozketatuko dugu)



Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
JATETXEA

ARRASATE BIDAIAK

INTERSPORT
LORAMENDI ZUMARRAGA



Takashi Inuik hainbat arrisku jokaldi sortu zituen bigarren zatian. **XABIER URZELAI**



Ander Capak bi gol sartu zituen; irudietan, bigarrenaren jaurtiketa unea. **X.U.**



Zalea erretratua egiten. **X.U.**

Atxabalpen askok gozatu zuten futbol jaiarekin

FUTBOLA Eibarrek 4-0 hartu zuen mendean Bigarren B mailako Barakaldo, eguazteneko lagunartekoan. Nanok, Capak –birritan– eta Enrichek sartu zituzten golak. Zale gazteek, eta ez horren gazteek, gozatu ederra hartu zuten

Xabier Urzelai ARRASATE Arratsalde borobila izan zen eguaztenekoa. Aurreikusi bezala, Atxabalpeko harmailek itxura ederra erakutsi zuten Eibarren eta Barakaldoren artekoan. Eta Mondra futbol taldeak ere bete zuten helburua; lan ondo eginda, hori bai. Klubeko ordezkari mordoia –jokalariek, gurasoak eta zuzendaritzako ordezkariak– izan zen buru-belarri lanean, txosnan jatekoak eta edatekoak zerbitzatzen, errifak saltzen, berdegunean segurtasuna bermatzen... Eta, seguru, urteko

aurrekontuan bultzada izango dutela, jendeak erantzun egin zuen eta. "Dena etorriko zaigu ondo", adierazi zuen Ramon Azkarate presidentek. Udal ordezkariak izan ziren norgehiagoka jarraitzen, baita federazioko ordezkariak ere; berdegunean, berriz, ordezkari bakarra: Amorebietatik Barakaldora salto egin duen Iñaki Olaortua elgetarra. Atxabalpek, eguaztenean, entrenamendu zelai izateari utzi zion, 90 minutuz ez bada ere, ostera ere futbol zelai bilakatzeko.



Pozik, sinadurak lortuta. **X.U.**



Batzuetan, begiradak dena esaten du. **X.U.**



Zozketa antolatua zuen Mondrak. **X.U.**



Dena ez zen futbola izan. **X.U.**



Malen Ruiz de Azua. **X.U.**



Istar Dapena. **X.U.**



Iñigo Uribarren. **X.U.**



Aloña Mendik bost ordezkari izango ditu etxeko lasterketan. **GOIENA**

Ibilbide berriarekin dator Arantzazuko Igoera, zapatuan

TXIRRINDULARITZA Gazte mailako txirrindulariek 60 kilometro egin beharko dituzte mendatea hasi aurretik

X.U. ARRASATE Arantzazuko Igoerak –48. edizioa– lehenengoz izango ditu 70 kilometro. Aurrekoetan, ziklistek zuzen hartu izan dute Arantzazurako bidea, Sindikara, baina lasterketak apenas zituen 10 kilometro: "Klubean aldaketa beharra ikusten genuen, eta federaziotik ere hori eskatzen ziguten, baina, iaz 50 urte bete genituen, lasterketa bere horretan uztea erabaki genuen, eta aurten egingo dugu lehenengoz aldaketa", dio Ruper Arkauzek. Bada, orain arte ziklistek fresko hasten zituzten Arantza-

zuko lehenengo maldak eta bihar, zapatua (16:00) beroaldi batzuk hartuta hasiko dituzte lan horiek. Izan ere, Bergararako bidea ziklistek Torreauzon eskumara hartu eta Zuazolan ezkerretara eginda Santipillauko maldak izango dituzte zain –38. kilometroa–. Arrasaterako bidea hartuko dute gero, eta handik bueltan igoko dira Arantzazura. Gazte mailako lasterketan Oñatiko ordezkariak izango dira Ander Gartzia, Josu Gartzia, Julen Otero, Gaizka Maiztegi eta Nestor Uroz.

Denboraldiko azken ahalegina, Bartzelonan

ATLETISMOA Espainiako Txapelketa Absolutuan izango dira, asteburuan, Istar Dapena, Malen Ruiz de Azua, Iñigo Uribarren eta Iruñean entrenatzen den Maialen Axpe arrasatearrak; zapatu iluntzean lehiatuko dira gizonezkoak, domekan emakumezkoak

Xabier Urzelai ARRASATE Poloniatik bueltan etorri, aste barruan lan egin –eta ahal den moduan entrenatu–, eta ostera ere pertikak auto gainera igota Bartzelonarako bidea hartuko dute Arrasateko pertika-jaurtilariek, asteburuan dute-eta Espainiako Txapelketa Absolutua, urteko azken hitzordua. Istar Dapenaren eta Malen Ruiz de

Azuaren kasua da hori; Maialen Axpe, berriz, Gipuzkoako Txapelketan izan zen joan den astean (3,80), Bartzelonako hitzordura begira azken test serioa egiten. Bedoñakoak 4.20ko marka du aurten pista estalian.

Uribarren, gogotsu Iñigo Uribarrenek, berriz, mimoz prestatu du hitzordua. Gutxiga-

tik ez zuen Europako Txapelketa Absolutuan egoteko gutxieneko marka lortu, eta Bartzelonakoa du hitzordu nagusi. Hala, marka pertsonalak ontzeko asmoz doaz denak, eta auketak dituzte.

Bada, zapatuan lehiatuko dira Dapena (19:00) eta Uribarren (20:30), eta domekan izango da Axperen eta Ruiz de Azuaren txanda (18:45).

Eneko Carrascal Europakoan, Italian

Grosseton (Italia) jokatzen dabilzan Europako 20 urtez azpiko txapelketan dago Eneko Carrascal arrasatearra. Astelehenean Bartzelonatik abiatu zen Italiara, eta, egunotan entrenamendu saio txiki batzuk egin eta gero, zapatuan 16:45ean hasiko ditu kanporaketa saioak. Finalak, berriz, domekan izango dira, 15:15ean hasita.



Carrascal, ezkerretik lehena, selekzioko ordezkarietako Italian. **ARRASATE ATLETIKO**




RAMON AZKARATE MONDRAKO PRESIDENTEA

"Ikastexteetan sarrerek banatu ditugu gaztetxoak partidura etor daitezten. Eibarko eta Barakaldoko kamisetak dituzten gazteen artean Mondrako kamisetak ere ikus zitezela. Halakoak ondo datoz taldeari arlo ekonomikoan bultzadaxoa emateko".



JOSE LUIS EZKURRA MONDRAKO PRESIDENTE OHIA

"Egia esan, ni ez nau horrenbeste arduratzen hona ze talde etortzen den, baina ilusio handia egiten dit Atxabalpe berri ere jendez beteta ikusteak. Partiduari dagokionez, lehen zatian ez da golik egon, eta bigarrenean Eibar errazegi ibili da".



IÑAKI OLAORTUA BARAKALDOKO JOKALARI ELGETARRA

"Barakaldora iritsi berria naiz, eta astebete baino ez dugu egin entrenatzen; horrenbestez, erritmoa hartzen gabiltza. Iaz Amorebietan jokatu nuen, lehenengo esperientzia izan zen golik egon, eta bigarrenean Eibar eutsi genion; hortaz, ondo".



AINHOA ITURRIOTZ MONDRAKO JOKALARIA

"Lehenengo zatian errifak saltzen egon gara, baina bigarrenean tarte bat hartu dut partidua ikusteko. Ondo dago halakoak Atxabalpen antolatzea, ez dugu izaten aukera handirik maila honetako jokalariek horren gertu ikusteko, eta eskertu egiten da".



ASIER RIESGO EIBARKO ATEZAINA

"Arratsalde polita izan da, jende asko etorri da Atxabalpera eta gustura egon gara. Gainera, helburuak bete ditugu, inork ez du minik hartu eta, gainera, partidua ondo irabazi dugu. Erritmoa hartzen joatea da orain helburua".

MENDIA Asier Alonso oñatiarra hirugarren El Molieres maratoin

TXIRRINDULARITZA Garazi Estebez, Euskadiko txapeldun, bigarrenez

Sasoi betean da Garazi Estebez aretxabaletarra. Duela 15 egun, Espainiako Txapelketan urrezko eta brontzezko dominak eskuratu zituen, Avilan, eta joan den asteburuan, Tolosan egindako Euskadiko Txapelketan Ogiherri taldeko ziklista izan zen azkarrena, esprintean nagusituta. Hala, kadete mailako ziklistak bigarren urtez lortu du Euskadiko Txapelketa irabaztea: "Oso pozik nago egindakoarekin. Lasterketa laua zen, baina gazte mailakoekin lehiatu ginen eta horrek gogortu egin zuen proba". Gainera, Estebezek lider jarraitzen du Euskalduna Torneon.

Joan den zapatuan jokatu zuten 400 bat lasterkarik Vielhan (Lleidá) hasi eta amaitzen den 40 kilometroko lasterketa. Kataluniako bi lasterkari izan ziren azkarrenak: Nik Bacardit eta Josep Cuadrat. Podiuma osatzen hirugarrena, berriz, Asier Alonso oñatiarra izan zen. Alonsok adierazi du lasterketa gogorra izan zela eta pena apur batekin amaitu zuela. Azken tontorrean eta zortzi kilometroren faltan lehenengo zihonan bost minutu eta erdiko aldearekin. Azken jaitsieran ezin izan zion postuari eutsi eta kilometro eta erdiren faltan aurreratu zuten Bacarditek eta Cuadratek.



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Kale neurketa

Zalaparta dezente piztu da euskararen azken kale neurketaren emaitzekin. Oro har, ez dira onak, ez. Baina bere tokian kokatu behar dira, negarrari ekin aurretik.

Kale neurketarena metodo atipiko bat da, ezohikoa. Argazkia beti antzera eginda, balio lezake argazki arteko bilakaera antzemateko. Balioa irabazten du, ordea, inkesta estatistikoeekin gurutzatuta. Are gehiago irabaziko luke erabileraren neurketa sistema oso bat garatuko balitz, biziberritze prozesuaren beste adierazleekin bateratuta.

Duela bost urte kale erabilerari sabaiak ikusi zitzaizkion, eta oraingo neurketak sabai horiek berretsi egin ditu. Badira datu onak –gazteen eta emakumeen lidergoa–, baina baita arriskua adierazten dutenak.

Lanean ari gara, baina, are gogorrago bost urtetik hona; lanean, gauzak ezberdin egiteko, eraginkortasun bila; lanean, hiztunak aktibatuzko eta euskararen baldintza sozialak hobetzeko. Elkarrekin ari gara lanean, bateko eta bestekoak, indarrak metatuta ahal handiagoa izango dugulakoan. Elkarrekin bide berrien bila, bost urte barru joera alda dezakegula sinetsita. Gogotsu eta bizi, inertzia aurka daukanak lana baitu eguneroko afana.

BUKATZEKO



Jon Mujika, zeharkaldia amaituta. JON MUJIKA



Xabier Gordoia, itsas proban. XABIER GORDOIA

Debagoiena eta itsasoa, zeharkaldien bitartez

Ibarreko herrian kosta girorik ez bada ere, asko dira itsaso zeharkaldiak egitera animatzen diren debagoiendarrak; are gehiago, indartzen dihardu afizioak. Horietako batzuek, gainera, aurreneko postuak dastatzen dituzte

Iker Oñate DEBAGOIENA

Ezin uka debagoiendarren artean arrakasta handia dutela itsas zeharkaldiek. Igerilekuko probetara mugatu barik, itsasoan igeri egitera ausartzen den igerilari asko daude ibarrean; tartean, aurreneko postuak dastatzen dituztenak. Horri lotuta, aipamen berezia egin dakieke Xabier Gordoia oñatiarrari eta

Jon Mujika bergararrari. Nork bere estilora, baina biek ala biek lortzen dituzte gustura egoteko moduko emaitzak.

Ibarreko igerilarien artean, indartuz doa itsas zeharkaldien bueltako afizioa. Hori gehiago nabari da urteko proba arrakastatsuenetan, gainerakoetan baino. “Ezin uka itsas zeharkaldietan parte hartzen duen deba-

goiendar kopurua gora doala, baina soilik proba zehatz batzuetan nabari da hori”, berretsi du Gordoia.

Itsas probez gaindi

Aipatu beharra dago, ohikoean, ibarreko kirolariek ez dutela denboraldia udako itsas zeharkaldietara mugatzen. Askok, igerilekuko probetan mur-

gildurik dihardute urtean zehar. Hori da, esaterako, Jon Mujika-ren kasua.

Gaur-gaurkoz, Espainiako igeriketa txapelketarako prestakuntza fasean murgildurik dihardu bergararrak. Abuztuaren 1etik 5era bitartean izango da txapelketa, Terrassan –Katalunian–. “Igerilekuko denboraldia amaitu arte, ezin dut itsas zeharkaldietan parte hartu. Espainiako txapelketa amaitu eta oporraldi bat hartu ostean hasiko naiz itsas probekin”, argitu du Mujikak. Hala, Itzurungoa izango du itsasoaren bueltako lehen proba, abuztuaren 19an.

Esan beharra dago, bestetik, denboraldian zehar izaniko prestakuntza saioak baliagarri zaizkio Mujikari: “Denboraldiko entrenamenduko lagungarri zaizkit itsas zeharkaldiei begira, duda barik”. Finean, itsas probetan esku hartzen duten kirolariek igerilekuan entrenatzen dute sarri.

Proba kuttunak

Kirolari orok izan ohi du proba kuttunen bat. Bada, horiez mintzo, Getaria eta Zarautz arteko zeharkaldia dakarte gogora igerilariek; uztailearen 23an, domekan, egingo da aipaturikoa. “Parte hartzaile ugari dituen proba da; eta maila handiko jendea ibili ohi da gainera”, azaldu du Gordoia. Bertan izango da oñatiarra.

Domekako zeharkaldiari dagokionez, Gordoia argi du bere zeregina: “Ahalik eta distantzia luzeenean eutsi gura diot lehen taldeari, denbora asko ez galtzeko. Nire helburua ez da irabaztea, sekulako maila baitago”. Denbora ona egitera doa, beraz.

%30 des kon tua

EGUZKITAKO BETAURREKOEN bilduma BERRI GUZTIETAN

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan

www.multiópticasgipuzkoa.com

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRETERIA
LASARTE • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Baliozgarria 2017/09/15 arte. 50€-tik gorako betaurrekoetan. Kontsulta itzazu zure optikan kampañaren ezagutza. Ezin da beste ena amara batzuetan erabili.